



## Bat, bi, hiru...ieup!

Santa Ageda bezpera ospatu dute herritarrek asteon; ikasleak aritu dira goizean, eta herriko hainbat elkarte arratsaldean / 6-7

TXINTXARRI

## Itsasoan murgiltzen

Itsaspeko Zinema Zikloaren hamabigarren zikloa antolatu dute otsailean zehar / 8-9

'Erik eta Win' ikuskizuna, nortasun erduz eta harremanez hausnartzeko ariketa / 4

Ostadar SKTk partida garrantzitsua jokatuko du Allerruren aurka; mailaz igotzeko lehia ari dira bi taldeak / 10

# ATE IREKIEN JARDUNALDIAK



USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

Otsailak 12, asteazkena  
18:00etan

Zatoz gu ezagutzera!

**Ez galdu aukera!!**



[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

# Martxoaren 8a iragartzeko lehiaketa

12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta dago kartel lehiaketa. Formatu digitalean edo fisikoan aurkeztu ahalko dituzte lanak, otsailaren 24ra arte. Data hori pasata, erakusgai jarriko dituzte Emakumeen Zentroan, eta herritarrek iritzia emateko aukera izango dute

## Txintxarri

Udaleko Gizarte Zerbitzuak Martxoaren 8rako kartel lehiaketako oinarriak jakitera eman ditu. 120 euroko saria eskuratuko du kartel iragarlearen irabazleak. Emakumeen Nazioarteko Eguneko lehiaketa hori 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta dago.

Nahi adina proposamen aurkeztu ahalko dituzte parte hartzaileek, beti ere, jatorrizkoak badira eta beste lehiaketaren batean sarituak izan ez badira. Kartelaren edo bere irudien jabetza intelektuala ere egilearena izatea ezinbetsekoa da. Aurkeztutako lanek *Martxoak 8 de Marzo, Emakumeen Nazioarteko eguna, Día Internacional de las Mujeres* goiburua izan behar dute eta 50x70 zm-ko tamaina. Formatu digitalean, zein fisikoan aurkeztu ahalko dira proposamenak otsailaren 24ra arte.

Formatu digitaleko artxiboek jpg eta 300 ppko bereizmena izan behar dute, eta [emakumezentroa@lasarte-oria.eus](mailto:emakumezentroa@lasarte-oria.eus) helbidera bidali behar dira. Artxiboaren izena lanaren izentzat hartuko da, eta egilearen datu pertsonalak eta



Iragan urtean, Martxoaren 8a iragartzeko egindako zenbait lan. TXINTXARRI

harremanetako datuak dituen mezu bat ere bidali beharko dira.

Euskarri fisikoan aurkeztu nahi duenak Emakumeen Zentroan eraman behar du lana, zentroaren ohiko ordutegian -09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era-. Kartelaren izenak atzealdean egon behar du idatzita, eta horrekin batera egilearen datu pertsonalak eta harremanetako datuak dituen gutun-azala ere atxiki behar da.

Proposamen guztiak Emakumeen zentroan egongo dira ikusgai otsailaren 24tik martxoaren 4ra bitarte. Kartel irabazle epaimahai batek erabakiko duen arren, herritarrek euren iritzia eman ahalko dituzte 2. eta 3. sariak aukeratzeko. Irabazleak 120 euroko saria jasoko du, bigarren postua eskuratzen duenak 90 euro eta hirugarrenak, aldiz, 60 euro.

## 'Apelliduak' abizentzeko kanpaina martxan jarri dute

2018. urtean 'apelliduak' abizendu dituzten herritarren kopurua bikoiztu egin da iragan urtean

### Txintxarri

Gaztelaniazko abizenak euskalduntzeko aukera dute lasarteoriarrek. *Apelliduak abizendu* kanpaina jarri dute martxan Beterri-Buntzaldeako udalek. Gaztelaniazko abizenak euskarazko grafiaz idatzita nahi dituen herritarrek, udaletxera edo Bake Epaitegira joan behar du. Donostian jaiotakoak, ordea, Donostiako Erregistro Zibilera ere joan beharko du.

Prozesua martxan jartzeko hiru dokumentu aurkeztu behar dituzte interesatuek: errolda agiria, jaiotagiri ofiziala eta NANaren fotokopia. Lehena udaletxean bertan eskuratu

daiteke eta bigarrena jaioterriko Bake Epaitegian. Ezkonduek edo seme-alabak dituztenek, berriz, aurreko hiru dokumentuekin batera, familia-liburua ere aurkeztu beharko dute. Horiek eskuartean izanda, Bake Epaitegira eramatea nahikoa izango da; bertan egingo da tramitea.

2018. urtean *apelliduak* abizendu dituzten herritarren kopurua bikoiztu egin da 2019. urtean. Horrela jakinarazi du Lasarte-Oriako Udalak. Informazio gehiago nahi duen herritarrek, udaletxeko Euskara Zerbitzura dei dezake (943 376 184) edo Bake Epaitegira (943 371 629).

## Eskrima hastapen ikastaroan izen-emate epea zabaldu dute

Kiroldegian egingo dituzte bi saio, datorren larunbatean. Arratsaldeko 16:00etan lehena, eta 17:30ean bigarrena

### Txintxarri

2008, 2009, 2010 eta 2011. urtean jaiotako gaztetxoak eskriman lehen pausoak emateko saio berezia antolatu du Lasarte-Oriako Udalak.

Otsailaren 15ean izango da hitzordua Maialen Chourraut kiroldegian, eta bi txanda aurreikusitako dituzte. Lehenengo

arratsaldeko 16:00etan eta bigarrena, berriz, 17:30ean.

### Izen ematea

Dagoeneko irekita dago izen emate epea, kiroldegian. Antolatzailak jakinarazi dute plazak mugatuak direla, eta izen emate zerrenda errespetatuko dute. Doako saioa izango da.

## Ikastaro ugariren eskaintza egin du KZguneak, otsailerako

Izena ematea KZgunean egin behar dute ikasle berriek. Erabiltzaile izan direnek, ordea, web orrian egin dezakete

### Txintxarri

Teknologia berrietan trebatzeko ikastaroen eskaintza zabala egin du KZguneak. Martxan dira dagoeneko batzuk, baina hilabete zehar izango da beste hainbatetan hasteko aukera. Astelehenetik ostiralera egin daiteke izen ematea, 09:00etatik 13:00etarako ordutegian.

Aurrez aurreko formazioei dagokienez hauek dira ikastaroak: Otsailaren 14an *Musika aplikazioak zure smartphonean* saioa izango da. Gaztelaniaz izango da, arratsaldeko 16:00etatik 18:00ak arte. 17an eta 18an, berriz, *Google argazkiak*. Antolatu hodeian zure argazki guztiak.

ikastaroa eskainiko dute. Hau ere 16:00etatik 18:00etara, gaztelaniaz.

Otsailaren 17an ere beste formazio saio bat jarriko da martxan, eta 28ra arte iraungo du: *Ofimatika tresnak LibreOffice*. Goizeko 11:00etatik 13:00etara izango dira saioak, eta horiek ere gaztelaniaz.

19an eta 20an ere izango da zer ikasia. *Argazkiei ukituak eman zure smartphonearekin* saioan parte hartzeko aukera izango dute interesatuek. Arratsaldez izango da, 16:00etatik 18:00etara, gaztelaniaz.

Bidaiak egin nahi dituenak ere horiek antolatzeko ikastaro batean parte hartu ahal izango du; Otsailaren 24tik 26ra, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara *Zure bidaiak planifikatu* ikastaroa eskainiko baitu KZ Guneak. Hori ere gaztelaniaz izango da.

Gaur egun, garraio publikoaren inguruko informazio asko eskuratu daiteke teknologia berrien bidez; ordutegiak, geldialdiak... Horren erabileran trebatzeko ikastaroa ere antolatu dute. Hilabete amaieran, otsailaren 27an eta 28an izango da *Garraio publikoa zure*

*smartphonean*, 16:00etatik 18:00etara.

### Online ikastaroak

Aurrez aurreko saioetara joaterik ez duten herritarrek ere izango dute aukera KZ Guneako ikastaroetan parte hartzeko. Guztira lau formazioen eskaintza egin dute, baina horietatik hiru dagoeneko hasita daude.

Laugarrena, otsailaren 24an hasiko da eta martxoaren 3ra arte iraungo du. *Instagram, argazkiak atera eta partekatu zure unerik onenak* izango da ikastaroa, gaztelaniaz.

# Ekintzaileentzat formazioa, KoopFabrikan

Ekintzailetza sozialaren eta ekonomia sozial eraldatzailearen inguruko formakuntza jasoko dute ekintzaileek, KoopFabrikan. Astelehen goizean aurkeztu dute egitasmoa, Hernaniko Iturola eraikinean. Izen emateko aukera zabalik dute oraindik interesatuek

## Txintxarri

Datozen bi hilabeteetan zehar, ekintzailetza sozialean eta ekonomia sozial eraldatzailean formazioa jasoko dute hogeitakortuak 35 bat ekintzailek, KoopFabrikan. Hernaniko Iturola eraikinean dago kokatua, eta astelehen goizean egin dute aurtengo formazioaren aurkezpen ekitaldia. Bertan izan dira Xabier Lertxundi, Hernaniko alkatea, Arianne Karega, KoopFabrikako koordinatzailea, Nerea Yurrebaso, Beterri-Buruntzako udaletako kidea eta Idoia Telleria ekintzailea. Eskualdeko udalen laguntzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantziarioari esker, egingo dituzte, berriz ere, formazio saio horiek. 2014. urtean antolatutako zituzten lehenengoz.

Hernaniko Udalarentzat administrazio publikotik sustatu nahi den eredu sozioekonomikoa Ekonomia Sozial eta eraldatzailea dela azpimarratu du Hernaniko alkate Xabier Lertxundik. "Hori da herri eta lurraldeen garapena ahalik eta modu justu, jasangarri eta parekidean ematen dela bermatzen duen eredu".

Berehitzetako batu zaie Nerea Yurrebaso. Honek ekintzaileei dei egin die formazioan zehar ikasitakotik gizarteari ekarpen bat egitera. Horrekin batera,



Besteak beste, Mirentxun ospatu ahalko dituzte zeremonia zibilak herritarrek. TXINTXARRI

2014. urteko lehen ediziotik gaurdaino KoopFabrikak emandako zenbait fruitu ekarri ditu gogora.

Arianne Karegak, berriz, KoopFabrikaren izenean, eragile guztiek 2014az geroztik emandako laguntza eskertu, eta elkarlan horrekin jarraitzeko asmoa ere azaldu du. Gainera, Iturulako kideen prestutasuna eta laguntza ere eskertu ditu, ekintzailetza soziala eta ekonomia sozial eraldatzailea Beterri-Buruntza eskualdean sustatzeko egiten duten lanagatik.

Azkenik, Idoia Telleria ekintzaileak hartu du hitza. KoopFabrikako bere

esperientziaren berri eman die Hernaniko eraikinean bildutakoei, eta bere proiektua garatzerakoan jasotako laguntza eta tresnak eskertu ditu. "Buruan nuen ideia borobiltzen eta errealitate bihurtzen lagundu zidan egitasmoak".

Dagoeneko hogeitakortuak 35 ekintzailek eman dute izena formazio saioetan parte hartzeko, baina oraindik bada aukera datozen saioetan izena emateko; zabalik jarraitzen du epeak. Horretarako *koopfabrika.eus* helbidea jarri dute interesatuen eskura, eta horrez gain, informazio gehiago nahi dutenek ere atari bera bisitatuta jaso dezakete.



NEURE KABUZ

GORKA LASA

## Okupazioa

Lagunartea, gazteria, aniztasuna, autogestioa, bizimodu alternatiboa... gauza ugari datozkigu burura "okupazio" hitza entzutean.

80. hamarkadan egoera sozio-ekonomikoa zulo ilun batean murgildurik, etsipena zen nagusi gazteen artean, ezinegon handia bizi zen, eta aldarrikapenerako iturri bilakatu ziren gaztetxeak. Non-nahi okupatu ziren etxebizitza, lokal, baserri, apeadero, guardetxe eta nola-halako eraikinak; Hierarkiatik at bizi nahi zuten gazteak, antimilitarista, feminista, langabetu... oro har, gazte mugimenduak biltzen zituen.

Bi belaunaldi geroago, gaur egun alegia, gazteen egoera ez da askoz hobea. 80. hamarkadan gaztetxeek izugarritzko loraldia izan bazuten ere, gaurdaino iraun duen udaberria dela esango nuke. Aipatu besterik ez dago azken urteotan Kikutza eta Maravillas gaztetxeen desokupazioa eta eraisketek izan duten oihartzuna. Biek ala biek gizartearen izan duten onarpenera eta auzotarren babesari muzin eginez, erabaki politikoei indarkeriaz suntsitu zituzten.

Baina bada okupazioa eramaten duen beste behar bat, egungo lan eta etxebizitza prekarietatearen isla; Alokairuko etxe gutxi, pisu garestiak, lan baldintza kaskarrak... Etxebizitza bat edukitzea eskubide bat den arren, dirutza bat ordaintzea bizitza sistemari saltzea da. Egoera honen aurrean, alternatiba, oraindik ere, batzuentzat, etxe huts bat okupatzea da.

Baina okupazioak eta desokupazioak daude, batzuen mesederako eta besteen kalterako. Ezin aipatu gabe utzi Pasai Antxon gertatu berri dena. Kasu honetan erabaki politiko batek ez, auzokideen presioak aterarazi ditu okupak etxe hutsetik, nagusien mesederako.

Okupazioak okupazio, oraindik ere bizirik eta alternatiba dirudien mugimendua da.

## Lasarte-Orian Berriketan, hurrengo pausoak zehazteko

Herriko Gure Esku Dago herri ekimenak Lasarte-Orian Berriketan saio berria egingo du. Hitzordua hurrengo asteazkenean, otsailaren 12an da, 19:00etatik 20:30era, Antonio Mercero aretoan.

Lasarte-Orian etorkizun politikoa erabakitze

erreferendumaren aldeko hurrengo pausoak zehazten saiatuko da Gure Esku ekimena hiru galderei erantzunez. Horien bitartez, ekimenaren aldeko elkarguneko osakerari, komunikazio sarearen sendotzeari eta sinadura bilketari buruz hausnartuko da.

Ekimeneko kideek lasarteoriatarrei gonbita egiten diete solasaldian parte hartu eta haien proposamenak ematera.

**Ipuin kontaketa berezia...**  
Asmakizunak, abestiak eta poesiak ... ipuinak lantzeko!  
**HH3-HH4koentzat**  
**Otsailak 19, 17:45ean**  
**Anbulatorio gaineko 2. solairuan.**  
Izena emateko:  
Ttakuneko bulegoan,  
[aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus)  
whatsapp: 695785392

Ttakun Kultur Buroia LASARTE-ORIAN @TtakunKE

**ESLOVENIA & ISTRIA**

**NOAOA BIDAIAK**

**ZETAREN BIDEA (Uzbekistan)**

**TALDE BIDAIAK**

T.: 943 373 613  
[info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus)

AZKEN PLAZAK



Atxega eta Muñoa (ezkerretik hasita lehena eta hirugarrena, goian), 'Erik eta Win' ikuskizunaren aurkezpen prentsaurrekoan. BUHAMEAK

## Biluzte emozionala oholtza gainean

Buhameak taldeak gaur iluntzean estreinatuko du 'Erik eta Win' ikuskizuna; eszenatokira igoko diren lau kidetatik bi herritarrak dira: Unai Muñoa bertsolaria eta Aitor Atxega musikaria. Hainbat diziplina artistiko uztartuz, ikus-entzuleek hausnartzea bilatzen dute

### Iñigo Gonzalez Sarobe

*Erik eta Win* izena du Buhameak taldearen ikuskizun berriak. Gaur estreinatuko dute, hilak 7, Donostiako Lugaritz kulturgunean, 20:00etan. Lau kide igoko dira oholtza gainera: Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariak, eta Imanol Kamio eta Aitor Atxega musikariak. Lasarteoriarrak dira Muñoa eta Atxega. Ez dira

aurreneko ariko elkarrekin oholtza gainean: *Ez gara Palestinaz ari* estreinatu zuten 2013an; Euskal Herrian zehar hara eta hona ibili ziren, lau urtez.

Egileek aurreratzen dutenez, *Erik eta Win* ez da "bigarren zati edo jarraipen bat", bi lanek ezaugarri komunak dituzten arren. Oraingo honetan ere, Lizarralde eta Muñoa bertsolariek egoera

intimoak partekatuko dituzte ikus-entzuleekin, haiengan "zenbait galdera ikur" sortzeko asmoz. Aztertuko dutena, ordea, desberdina izango da: bakoitzaren errealitate propioa aztertu eta azaldu ordez, bien arteko harremana hartuko dute harizat. Norbera beste pertsona batekin harremanetan denean sortzen diren botere harremanak, batak

bestearekiko dituen interesak, inbidiak, maitasun keinuak... "Ander Lizarralde eta biok aspalditik ezagutzen dugu elkar; harreman oso estua egin dugu, konfiantzazkoa; gatazkak eta erlazio horren bilakaera jorratuko ditugu", azaldu du Muñoak. Euren burua aztertuko dute baita ere gizon bezala: euren artean nola harremanetan diren, eta baita emakumeekin nola erlazioetan diren egunerokoan.

### 'Erik eta Win': sortze prozesua

"Duela hiru urte otu zitzaigun ikuskizun berri bat egiteko ideia", dio Muñoak. Azaldu du nondik datorren izena: "Erik eta Win bi errefuxiatu dira: aldiro-aldiro, ihes egin behar zuten leku batetik bestera; identitate desberdin bat jartzen zieten toki berri batera iristean. Horieta batean, holandar zateza egokitu zitzairen, eta hor hartu zituzten bi izenak". Bertsolariak istorioa kontatzen jarraitu du: "Hainbeste identitate desberdinekin, azkenean ahaztu egin zuten biek nor zen Erik eta nor zen Win. Horrek erakusten du, batzuetan, beste norbaitekin harremanetan, asko sartzen gara gu bestearen bizitzan, edo alderantziz, eta galdu egiten dugula nortasuna".

Estreinaldirako bi egun falta direla, eszenatokira igotzeko gogoia eta emozioa sentitzen ditu Muñoak, batez ere. "Gogoan dut *Ez gara Palestinaz ari* estreinatu aurretik askoz urduriago nengoela: nola hartuko gintuzten ikus-entzuleek, epaituak izateko beldurra, eszenak, mundu berri batean murgiltzea... Beti daukazu kezka puntu bat, baina fase hori gaindituta dagoela uste dut". Buhameak taldearen lehen ikuskizunak, *Ez gara Palestinaz ari*-k, harrera oso ona izan zuen,

eta makina bat emanaldi egin zituzten. "Uste dugu lan berri honek ere sortuko duela ikusmina, eta hainbat aretok ateak irekiko dizkigutela berriz; dena den, ez gaitu kezkatzen, ez gara horretaz bizi. Askok gozatu dugu sortze prozesuan. Esku artean obra on bat daukagulakoan nago".

Arestian esan bezala, hainbat pertsonak parte hartzen dute *Erik eta Win* ikuskizunean. Buhameak taldeko lau kideez gain, oraingo honetan zuzendari artistiko batengana jo dute, Asier Sotarengana, sortze prozesuan parte hartzeko eta lana zuzentzeko. "Ez gara Palestinaz ari-ren eszenak solteak ziren; batetik bestera egiten genuen jauzi. Oraingo honetan, istorioa ongi josia dago; Asierrek asko lagundu digu".

Hainbat diziplina artistiko jorratuko dituzte lan berrian: antzerkia, musika, kantua, bertsoak eta poesia. Zenbait unetan sakon, eta zati gehienetan umoretsu. Ordubate baino zerbait gehiago irauko du, eta "oso dinamikoa" izango da, Muñoak aurreratu duenez. "Inprobisazio saio asko egin ditugu Lizarralde eta biok, eta hortik sortu gidoia; oso neurtuta daukagu dena, baina bat-batekotasun hori da oinarria". Imanol Kamio piano eta akordeoi-joleak eta Aitor Atxega gitarristak musikatu dute emanaldia. "Familia txiki bat gara; oso ongi aritzen gara elkarrekin lanean", dio Muñoak. Jakinarazi du, aurreko ikuskizunean ez bezala, antzerki zatietan parte hartuko dutela biek. "Integratuago egongo dira". Ekarpenean "oso interesgarriak" egin dituzte musikalki: "Oso abilak dira melodiak sortzen; bertso doinu guztiak berriak izango dira, eta hain ezagunak ez diren doinu batzuk sartuko ditugu: buleria eta bolero bana, adibidez".

## Aritz Moreno zinemagilearekin solasean, kultur etxean

'Ventajas de viajar en tren' zuzendu du donostiarrak; pelikula hori ikusi dute herritarrek, Okendo ZTk antolatutako saioan

### Txintxarri

Aritz Moreno zuzendari donostiarrak egindako *Ventajas de viajar en tren* ikusteko jende ugari bildu zen kultur etxean ostiral gauean. Zinemagileak aurkeztu zuen filma proiektzioaren

aurretik hitz batzuk esanda. Gogoan izan zuen duela urtebete Lasarte-Orian errodatzen aritu zirela eta pantailan herriko txokoak topatzera joka zezaketela eta eskerrak eman zizkion extra lana egin zuen herritarrari, aretoan

zegoena. Pelikula aurreiritzirik gabe ikusteko eskatu zien ere.

Ondoan izan zituen Okendo Zinema Taldeko Pilar Garcia eta Idoia Etxegoien. Garciak filmak jasotako izendapen eta sariak gogora ekarri zituen, besteak beste, komedia onenari Feroz Saria, emakumezko aktore onenari Forqué Saria Pilar Castrorentzat; eta lau izendapen Goya Sarietarako.

Filma bukatu ondoren, hitza hartu zuen berriro Morenok bertan zeudenen galderei erantzun eta solasean aritzeko.



Ikus-entzuleekin hizketan aritu zen Aritz Moreno, pasa den ostiralean. T. VALLES



Agerraldi publikoak egiten ari da GuraSOS asteotan, erraustegiaren inguruko "irregulartasunak" salatzeko. GURASOS

# GuraSOS: "Posible da erraustegia geraraztea"

GuraSOS elkarteak agerraldi publikoak egin ditu asteotan, "irregulartasunak" salatzeko Zubietako erraustegiaren egitasmoan. 'Kontuz ama naiz' kanpaina ere aurkeztu dute. Ekimen gehiago egingo dituzte: "Bide juridiko, diplomatiko eta mobilizatzailea uztartuko ditugu"

## Txintxarri

Zubietako Erraustegiaren IBB Ingurumen Baimen Bateratua "iraungita" dagoela, azpiegitura horretako transformadore batek ekainaren 11n izandako "istripua", enpresa emakidadunek GHK kontorsorioarekiko daukaten 21 milioi euroko zorra... Afera horiek guztiak jarri ditu mahai gainean GuraSOS elkarteak, azken bi asteetan egindako agerraldi publikoetan. "Proiektua geraraztea posible da". GuraSOSek azpimarratu du bide juridikoa, diplomatikoa eta mobilizatzailea uztartuko dituela horretarako. Datozen asteetan ekintza gehiagoren berri emango du

elkarteak. Adibidez, zehaztuko du zertan den *Kontuz ama naiz* kanpaina berria.

Atzo eguerdiko agerraldian GuraSOSek jakinarazitakoaren arabera, erraustegiaren enpresa emakidadunek 21 milioi euro zor dizkiote GHK Gipuzkoako Hondakinaren Kontorsioari, "kontratua ez dutelako bete". GHK-k eta enpresa talde horrek 2017ko apirilaren 3an sinatu zuten akordioa. Klausuletan zehaztu zuten 26 hilabetetan eraiki behar zutela hondakinak errausteko azpiegitura hori; hau da, iazko ekainaren 3an bukatzen zen epea. Gero, probaldi fasea hasiko zen, lau hilabetekoa.

GuraSOSek jakinarazi du ez zela horrela izan, ordea: 2019ko abenduaren 16an, GHKren batzarrak luzatu egin zuen epea, martxoaren 3ra arte. Erabaki hori hartzeko, 2017ko azarotik 2018ko uztaileira arteko txosten bat erabili zuten: dokumentu horrek esaten zuen "justifikatuta" zegoela obrak bost hilabetez atzeratzea, "euri-jasa handiak" zirela-eta. Iazko ekainaren 11n transformadore batek su hartu izana ere argudiatu zuen GHK-k.

"Argudio horiek ez dute balio", nabarmendu dute GuraSOSen zerbitzu juridikoek. "Eurite horiek ez dute hondamendirik eragin, eta transformadorearen leherketa

ez du tximista batek eragin, eta ez da nahita egindakoa izan, ustekabekoa baizik". Kasu horiek eta beste batzuk jasotzen ditu Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 242. artikulua, epeak ez betetzeagatik ezarri beharreko zigor ekonomikoak -60.000 euro- ez ordaindu behar izateko. Lehen esan bezala, GuraSOSen zerbitzu juridikoek uste dute ez dela horrelakorik gertatu. "GHKren helburua da galaraztea enpresek 21 milioi euro ordaindu behar izatea, eta kontratua bertan behera uzterakoan aitortu beharko luketen kudeaketa txarra". Elkarte horrek esan du administrazioarekiko auzi prozesu bat abiatu duela Donostiako Epaitegian.

Kontu gehiago ere jarri ditu mahai gainean GuraSOSek: iragan astean salatu zuen "iraungita" dagoela erraustegiaren Ingurumen Baimen Bateratua. "Espero dugu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak hala aitortuko duela datozen asteetan". Bestalde, jakinarazi du GHK kontorsorioak idatziz aitortu diola ekainaren 11n erraustegiaren transformadore batean istripu bat gertatu zela. "GHK-ko eledunek hitz egin izan dute gai horretaz, baina informazio ofizialik eman gabe".

## GHKren erantzuna

GuraSOSek salatutako aferei erantzun die GHK kontorsorioak. Ohar bidez, esan du Zubietako erraustegiaren epeen luzaketa "demokratikoa eta gardena" izan zela. "Partzuergoko batzarrak hartu ditu kontratuaren epeei buruzko erabakiak: beharrezko informazio guztia eman du, txosten tekniko eta juridikoak barne. Batzar horrek du eskumena a k o r d i o a r e n e d u k i a interpretatzeko". GHKren arabera, "justifikatuta" zeuden luzaketa

eskatzeko erabilitako argudioak. Era berean, GHK-k kritikatu egin du GuraSOSen jarduna: "Iritzi publikoa manipulatu nahi dute eta alarma soziala sortu".

## Manifestazioa otsailaren 29an

Larreko Mahaia osatzen duten eragileek manifestaziora deitu dute otsailaren 29an, larunbata, Donostian, 17:00etatik aurrera. Easo plazatik abiatuko da. Zubietako erraustegiaren aurka protestatuko dute, *Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna!* lelopean. GuraSOSek jakinarazi du bat egiten duela deialdi horrekin.

## "Arazoa da birziklatze-tasa eskasa"

Lasarte-Oriako Udalak hiri-hondakinak jasotzeko edukiontzien inguruan egin asmo duen galdeketa buruzko ikuspuntua eman du Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak. Esan du "guztiz faltsua" dela horri buruzko eztabaida. "Diseinatuta daude gaur egungo beharrak kontuan hartu gabe".

"Herriak hondakinekin duen arazo nagusia da azken putz izaten jarraitzen duela Gipuzkoan, birziklatze-kontuetan", zehaztu du Aire Garbiak. Galdera bat ere proposatu du, baina ez herritarrentzako, baizik eta udalarentzako: "Noizko gaikako bilketa gutxienez %60ra iristea ahalbidetuko duen sistema?".



JAVI GALLAGA RUIZ C. Penitenciario de Córdoba Ctra Sevilla-Madrid Km.391 Apdo. 479 14.007 Alcolea Córdoba

# Gazte eta helduak, santa eskean

## Santa Ageda bezpera ospatzen

Garaikoetxea-Landaberriko ikasleek astearte goizean egin zuten oles, zentro horretako patio estalian. Erdigunean barrena ibiltzekoak baziren ikasle eta irakasleak, baina, eguraldi kaskarra tarteko, erabaki zuten ikastetxean bertan geratzea, eta patio estalian ospatzea Santa Ageda bezpera. Guraso eta senide asko izan zituzten saioaren lekuko. Landaberri ikastetxeko LH6 mailako ikasleak Brigitarren komentura joan ziren arratsaldean.

Herriko hainbat elkartek hartu zuten lekukoa arratsaldean. Zabaletako bizilagunak izan ziren makila astintzera atera ziren lehenak. 18:00etan zuten hitzordua jarrita auzoko plazan, eta bertatik auzoko baserrietara joan ziren santa-eskean. Horien atzetik entzun ahal izan ziren Xumelako eta Earra Bertso Eskolako lagunak kantari. Erdigunean egin zuten saioa, eta Brigitarren komentua ere bisitatu zuten. Erketz Dantza Taldeko lagunek ere ez zuten hutsik egin urteroko hitzorduan. Herriko zenbait tabernatan makilaren laguntzaz abestu eta gero, Urnieta bidean barrena abiatu ziren.



Landaberri ikastolako LH mailako gaztetxoak arratsaldean ikastolako txikiei saioa egin zieten



Etxe txikienek goizean goiz astindu zituzten makilak, Garaikoetxea Landaberri ikastetxeko patioan. TXINTXARRI



Kuadrilla ederra aritu zen oles egiten bazkalostean; Landaberri LHko ikasle taldea, hain zuzen. TXINTXARRI




Sasoetan barrena ere ibili ziren santa-eskean Landaberriko ikasleak. TXINTXARRI




kaleetan barrena ibili baino lehen. TXINTXARRI



Zabaletako auzotarrek Antonio Blas plazan abestu zuten aurrenekoz. Baserrietan barrena ibili ziren gero. TXINTXARRI




Xumelako kideek, Earra bertso eskolako lagunekin batera Santa Ageda bezperako erronda polita egin dute kaskoan. TXINTXARRI



Abestiak eta makilak eskuetan hartuta abestu dituzte Santa Agedako doinuak. TXINTXARRI



Erketz dantza taldeko lagunek herriko kaskotik Urnieta bideko etxeetan barrena egin dute santa-eskea. TXINTXARRI



Andrea Ferrara ontzi-hondakinari buruzko film laburreko irudia. ANDREA FERRARA/FERNANDO MENOR VIVES



Salaketa ekologikoak garrantzia hartu du azken urteetako filmeetan. IT'S NOT A NIGHTMARE

# Itsas hondoa maitatzeko zikloa

Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloan kalitate handiko film labor eta dokumentalak ikusi ahalko dira otsailean zehar, Manuel Lekuona kultur etxean. Larraialdi klimatiko eta salaketa ekologikoak tarte handiagoa du kontzientziario ardatz duen zikloak

## Nerea Eizagirre

Hamabi edizio baino gehiago dira Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloak Lasarte-Orian bere hazia jarri zuenetik. Duela hamasei bat urte, Danok Kide elkarteak lokalean eskaintzen zuten lagina interesgarria iruditu zitzaizkien elkarteak, eta Manuel Lekuona Kultur Etxera salto ematea proposatu zieten zikloko arduradunei. Lasarte-Oriako udalaren laguntzaz eman zen pausoa eta urtez urte ikusle kopurua handitzen joan da. CIMASUB zikloaren zuzendari David Sanchez Carretero herriarrarekin solasean egon gara, azken urteetako bilakaera eta auzenteko edizioari buruz.

Azaroan Donostiako Aquariumean CIMASUB zikloa ospatu zen. Nazioarteko eta Estatuko itsaspeko profesionalak egindako film labor eta dokumentalak ikusi ahal izan

ziren bertan. Lan horiek guztiak Lasarte-Oriara iritsiko dira otsailean zehar, Danok Kide elkarteak, Lasarte-Oriako Udalak eta Real Sociedad futbol taldeko itsaspeko sailaren elkarlanari esker. Oso eskertua agertu da Sanchez Carretero, zikloa antolatzen laguntzen duten eragileen lanarengatik.

Hiru saio izango dira, otsailaren 10ean, 17an eta 24an. "Gutxiagotik gehiagora joango gara eta azken egunean sari nagusiak jaso dituzten lanak ikusiko ditugu. Rafa Herreroren lanari buruzko film laborra ere eskainiko da. Estatuko errealizadore eta itsas kamara onenatarikoa da, langile fina eta pertsona itzela".

Horrez gain, Urrezko baranda jaso duten bi lanak ere nabarmendu ditu, "Gillaume Nery apneistaren *One breath around the world* munduan zeharreko irudi txundigarriak eskaintzen ditu.

*Un paso de Gigante* dokumentalean Maldiva irlen irudi oso politak ikusi ahalko dira, baita animazio batzuk ere. Baina bertan duten arazoa ere aurkezten dute. Berotze globala eta itsas mailaren igoera dela eta Maldiva irlak desagertzeko zorian daude eta ekiditeko hormak egiten ari dira. Daniel Aldayak grabatutako lanean, Laura Madrueño kazetariak bere sentsazioak eta bizipenak kontatzen ditu. Oso interesgarria da. Gainera honetan, Gorka Leclerc kamara donostiarra ere egon da lanean".

Egitarruan aldaketaren bat dago. lehiaketaz kanpoko bi lan ikusi ahalko dira: Itziar Huerta eta Imanol Unanueren *Indonesia* eta Sanchez Carretero beraren, *El Thistlegorn*. Sanchez Carreteroren hitzetan, "lizentzia txikiak hartu ditut: Lasarte-Oriako jendeak ere bere lanak aurkeztea ez dago gaizki".

Lehen saioan, *Indonesia* film laborra ikusiko da. Imanol Unanuek eta Itziar Huertak filmatutako lana da. "Iaz bidali zidaten, baina ezin izan genuen sartu zikloan eta orain egingo dugu. Oso ondo dago eta Donostiako ziklora aurkezteko proposamena egin behar diet. Lehiaketan egon diren eta saria eraman duten hainbat lanen antzekoa da-eta".

Sanchez Carreteroren lana berriz, bigarren saioan ikusi ahalko da. "Ni, lehendakaria izanik, Donostiako zikloan nire lana aurkezteak ez du zentzurik. Hemen aurkeztea ongi iruditu zitzaidan, zeren eta nirekin bidaia horretara joan zen Real Sociedad itsaspeko klubeko jendeak pantaila handian ikusi nahi baitzuen. Nik bideoa grabatu eta muntatu dut. Burgoseko klubeko kide batek egin du gidoia eta lokuzioa", adierazi du.

## Kontzientziarioa

Zikloko filmetan gai ugari jorratzen dira, "animaliak, ontzi hondoratuak, dantza ere badugu", baina guztiek itsasoa zaindu behar izanaren mezuarekin bat egiten dutela azpimarratzen du Sanchez Carreterok. "Denek denuntzia ekologikoa egiten dute bere erara eta batzuk gai nagusi bezala dute.

## URTE ASKOTAN ITSASOAN DAUDEN ARAZOEI ENTZUNGOR EGIN DIETE FILM ETA DOKUMENTALEK

Gero eta gehiago ditugu. Lasarte-Orian lehen saioan eskainiko dugun *Salvemos los mares del planeta* dokumentala, esate baterako, oso ona da. Estetikoki oso polita da, gidoi ona du eta umorea txertatzen dute, baina errealitatea ere erakusten dizu, itsasoan dagoen arazoa".

Urte askotan itsasoan dauden arazoei "entzungor" egin diete film eta dokumentalek eta horri aurre egiteko, CIMASUBek salaketa ekologikoa gaitzat duten filmak saritzen hasi zela azaldu du Sanchez Carreterok. "Edertasuna da nagusi filmetan, baina noizbehinka bazegoen klima aldaketaren eraginari buruzko zerbait edo itsasoan aurki daitezkeen zaborrari buruzkoa. Afarrietan eta gaia ateratzen zen. Lan ederrak egiten ziren, baina nahiz eta irudiak izan ez zen errealitate hori ere islatzen. Hori egitera animatu nahi izan ditugu. Izan ere urteak egon gara itsu edo beste alde batera begira baita urpekariak ere. Itsaspeko jaisten ez denak ez du ikusten eta erakutsi behar da".

Sanchez Carretero berak bizitakoa azaldu digu: "Gu, esate baterako, o murgildu zaitezkeen ontzi-hondakin handienetakoan izan ginen Thistlegornen, Itsaso gorrian. Erraza da urpean igeri egiteko, eta lau urperatzean egiten da. Gauza ederrak ikusi genituen, baina kutsadura ere bazegoen. Petrolio aztarnak zeuden. Gidak esaten zigun 'gailera forma duten gauza horiek ez ukitu, ezta gorde ere. Uretarik ateratzerakoan



desegin eta gainetik ezin kendu ibiliko zarete'. Urpean ginela ere ezta ezta entzuten genituen. Petrolio-putzuetako lanak ziren. Horrek guztiak balea edo izurdeei eragiten die. Eta hori eremua babestu dela. Baina betikoa da: babestua dago turismoak eragin handia duelako eremu horretan. Bestela ez litzake babestuko, eta, nahiz eta babestu, petrolio-putzuak dituzte ondoan".

Egun larrialdi klimatikoa eta itsasoan dagoen plastiko kopuruari buruz asko hitz egiten dela aipatu du, baina arazoa duela bost hamarkada pairatzen dela gogoratzen du. "Plastikoaren arazoa 50. edo 60. hamarkadan hasi zen. Erosi den plastiko birziklatu ez bada, zabortegean ez badago edo erre ez bada, itsasoan dago. %80a izan daitekeela uste da eta bizi iraupen luzea du. Orain *Gloria* urakanarekin ikusi da, itsaso hondoa mugitu da eta duela 40 urteko gauzak agertu dira. Ikerlariak diotenez, kostatik gertu %20a dago bakarrik, sakonera handiagoetan dago beste guztia. Ez dago hori garbitzeko sistema errentagarriarik eta ez da desagertuko. Mikroplastikoan bilakatuko da eta arrainek eta animaliek jango dute. Katea jarraituz, guk ere jango dugu.



Gillaume Nery apneista protagonista duen *One breath around the world* dokumentalean estetikoki liluragarriak diren irudiak ikusi ahalko dira. ONE BREATH AROUND THE WORLD/GILLAUME NERY

Eta kontuan izanik arazoa noiz hasi zen, agian guk ere badugu dagoeneko mikroplastikoa gure gorputzetan".

Horregatik guztiagatik, ohiturak aldatu behar direla ohartarazi nahi du CIMASUBek, "atzera bueltarik ez dago-eta." Horretarako, belaunaldi berrietan eragitea ere beharrezkotzat jo zuten, eta haurrei zuzendutako Txikizikloa sortu zen.

"Itsas hondoa eta bere aberastasuna ezagutzera eman nahi genien etxeko txikiei, Jacques Cousteauren esaldi batean oinarrituta: 'Inork ez du maitatzen ezagutzen ez duena'. Zortzi urte dira Txikizikloa egiten duguna Donostian. Lasarte-Oriaz berreskuratu genuen. Real Sociedad Fundazioaren laguntza dugu honetan", azaldu du Sanchez Carreterok.

Saio dibertigarri eta dibulgatzaile egitea da helburua Sanchez Carreterok azaldu digunez. "Zikloko film labur batzuk eskaintzen dira eta *Salvemos los mares del planeta* dokumentalaren zatiak. Hitzaldi bat ere eskaintzen dute GAEA elkarteak. Maite Erauskin eta Elsa Cuende dira hizlariak. Azti fundazioan lan egiten dute, ozeanografo eta biologoak dira eta itsasoko kutsaduri buruzko ikerketak egiten dituzte".

Belaunaldi berriek Txikizikloarekiko duten harrerak asko pozten du Sanchez Carretero. "Gozamen bat da, guztia bereganatzen dute. Horretarako gainera material didaktikoa banatzen diegu gaia lantzeko. Lehiaketa antzeko bat egiten genuen lehen birziklatutako materialak erabiliz, bakoitzak nahi zuena egiten zuen eskulanak, marrazkiak, argazkiak... Orain lanketa egina daukate eta saioetan harkor daude. Galdera asko ere egiten dituzte, jakin min handia dute. Eta etxean eragina duela ere aipatu digute gurasoek. Ez erosi madalena horiek edo... beste eskaera ugari ere egiten dituztela adierazi digute".

Hori ikusirik, azaroan Donostian lehengo familiei zuzendutako

Txikizikloa egin zuen CIMASUBek Aquariumean, eta arrakasta handia izan zuen. "Jende ugari bildu zen eta batzuk kalean geratu behar izan ziren".

Donostia edo Lasarte-Oriaren antzera, zikloa eta Txikizikloa hainbat herrietan eskaintzen da. Orain Real Sociedad fundazioari esker, Txikizikloa ikastetxeetara eramateko saltoa eman nahi dutela aurreratu du Sanchez Carreterok.

#### Guztientzako filmak

Era honetara, ikusle kopurua handitu du CIMASUBek baina herritar gehiagorengana iritsi nahi du. Hori bideratuko duen filmen eta dokumentalen bilakaera sumatzen ari direla aipatu du Sanchez Carreterok.

"Bilakaera handia ikusten ari gara: dokumentalak baino film labur gehiago ditugu. Dinamikoagoak dira, bideo klip antzekoak, oso biziak eta harrigarriak. Gainera, dokumentalak ez dira klasikoak; erreportajeak dira. Oso ondo dago nire ustez, didaktikoak direlako eta mamia interesgarriagoa delako. Ikusle gehiagorengana iristeko modukoak dira. Lehen ikusle fidelak genituen eta orain itsasoarekin zer ikusirik ez duten pertsonak ere etortzen hasi dira. Horrelako pertsonengana iritsi nahi dugu".

Lasarteoriatar guztiak gonbidatzen ditu beraz, Manuel Lekuona izango diren saioetara. "Donostira gerturatu diren ezagunak txundituta geratu dira, eta hori berme bat da".

## Lasarteoriatarrei itsasoa ezagutarazteko zikloa

Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko hamabigarren zikloa aurkeztu zuten asteazkenean Danok Kide elkarteak, Lasarte-Oriako Udalak eta Real Sociedadeko Itsaspeko sailak.

Otsailaren 10ean, 17an eta 24ean Donostiako CIMASUB zikloan lehiatutako lanez gozatzeko aukera izango dute herritarrek.

Guztira 27 film labur eta lau dokumental eskainiko dira. Aurkezpenean azaldu dutenez, kalitate handiko lanak izango dira ikusgai egunerok. "Itsasoko eta itsas hondoko errealitatea herritarrei ezagutaraztea da gure helburua," azaldu du Sanchez Carreterok. Horregatik, ekologia eta itsasoaren zaintza presente izango da hainbat lanetan.

#### Haurrak eta erakusketa

Etorkizuneko belaunaldiek itsasoaren zaintzaren garrantziaz jabetzeko, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako Lehen hezkuntzako



Zikloko antolatzaile eta udal ordezkariak, aurkezpenean. TXINTXARRI

170 haurrek eurentzako bereziki egingo den Txikizikloa izango dute, otsailaren 24ean.

Proiektioez gain, itsas hondoko fauna, flora edo kutsaduraren ondorioak ikusteko beste tarte bat ere izango da, argazki erakusketa.

CIMASUB lehiaketako 23 argazki egongo dira erakusgai. Horien artean, lehiaketa irabazi zuten bost irudiak nabarmenduko dira. "Aquariumaren laguntzaz

antolatutakoa da eta haiek egiten dute aukeraketa. Denetarik ikusi ahalko da bertan itsas kutsadura irudietatik hasita irudi harrigarrietara, Kantabriko irudiak... Aurten gainera fitxa osatua egongo da irudi guztietan," azaldu digu Sanchez Carreterok.

Lasarte-Oriako zikloak iraun bitartean, otsailaren 10etik 27ra, Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian izango da erakusketa.

## ITSASOAREKIKO MAITASUNA ETA ERRESPECTUA IRAKASTEKO TXIKIZIKLOA DAGO

# Pausoz pauso, igoera postuetatik gertuago

Denboraldi bikaina egiten ari da Ostadar SKT, Erregional Preferentean: ligaren ia bi heren jokatura, hirugarren postuan dira urdin-beltzak, kategoriaz igotzeko postuetatik oso gertu. Bigarren sailkatuarekin neurtuko ditu indarrak asteburu honetan, Allerrurekin, Lezon

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Utopia zirudiena errealitate bihurtzen ari da. Denboraldiari ekin aurretik, zale eta aditu gutxi esango lukete Erregional Preferentea kategoriaz igotzeko lehian egongo litzatekeela ligako ia bi heren jokatu direnean. Kanpoko iritziek gutxi eragiten dute, ordea, barruan daudenek, jokalariek eta entrenatzaileek, haiengan sinesten dutenean. Ea norik esaten dien orain ez dutela aukerarik datorren denboraldian Ohorezko Mailan lehiatzeko. Hamabi partida falta dira oraindik bukatzeko, edozer gerta daiteke, baina Ostadar SKT oso ongi kokatuta dago: hirugarren postuan da, 35 punturekin.

Koska bat gorago, 37rekin, Allerru, maila honetako talde indartsuenetako bat. Lezoarren aurka jokatu dute urdin-beltzek asteburu honetan, larunbatean, 15:30ean, Plazetan. Irabaziz gero, aurreratu egingo lituzkete sailkapenean, eta baita *goal*



Denboraldiko hamargarren garaipena eskuratu du Ostadarrek asteburuan. TXINTXARRI

*average* indibiduala irabazi ere –Michelinen bana berdindu zuten–. Datorren astean ere etxetik kanpo jokatu dute, Sanpedrotarraren aurka. Hemendik bira ariko dira berriro etxean; Dunboa Eguzkirekin

neurtuko ditu indarrak Raul Pitu Rodriguez irundarrak entrenatzen duen taldeak.

Hemezortzi neurketa jokatu ditu Ostadar SKTk orain arte. Datu batzuk: hamar partida irabazi ditu, eta bost berdindu.

Bestela esanda: hiru besterik ez ditu galdu. 36 gol sartu ditu, eta hemeretzi jaso. Ligako defentsa onena da herritarrena, Allerrurenarekin batera. Ea nor gailentzen den larunbatean.

Liga bukatu artean, bost partida jokatu ditu Ostadarrek etxean, eta zazpi kanpoan. Bereziki deigarriak izango dira 26. eta 30. jardunaldietakoak: Deusto Donostia eta Vasconiaren aurka ariko dira urdin-beltzak, etxetik kanpo. Vasconia da kategoriako liderra, 40 punturekin. Deustu, berriz, laugarren postuan da, 32 puntu bilduta. Baliteke neurketa horietan erabakitzea gauza asko; adibidez, nor igoko den, edo nor geratzen den aukerarik gabe.

## Texas infantila, txapeldun

Pasa den asteburuko jardunaldiak utzi ditu albiste aipagarri gehiago. Esate baterako, Texas Lasartearra klubaren infantil mailako taldea 6. multzoko txapeldun izan dela, jardunaldi baten faltan. Udarregi A taldearekin 28na puntura berdinduta zeuden herritarrak –usurbildarrek jardunaldi bat gehiago jokatu dute–. Argi zuten gauza bat: irabaziz gero, ez zuten kezkatu behar arerioek egiten zutenaz. Esan eta egin: Udarregi B-ri Michelinen 2-0 gailenduta, Texas izan da txapelduna, 31 punturekin. Hamar partida irabazi dituzte eta bat berdindu. Galdu, bat ere ez oraindik. Asteburu honetan derbia jokatu du Ostadar SKTren aurka.



Reala, garaipena ospatzen. R.S.

## Balentria ederra egin, eta finalera

Reala izango da Superkopako finalistetako bat. 1-0 irabazi dio Levanteri, partida oso landua jokatu. Leire Baños erdilariak lehen zatia hasi eta gutxira sartu zuen gola; ongi defendatu zuten alde hori gero txuri-urdinek. Hasieratik aritu zen Iraia Iparragirre, eskuin hegaleko defentsa lanak egiten; 90 minutuak jokatu zituen. Aldizkari hau ixterakoan, erabakitzeke zegoen oraindik beste finalista: Atletico Madrid edo Barzelona. Igandean jokatu da final handia.

Miguel Angel Oribe eskultore lasarteoriatarrek diseinatu du Superkoparen garaikurra. "Desberdina da, irekia; nire serie batean oinarritu naiz lan hori egiteko, *Babeslekuak* izenekoan".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
ERREGIONALEN GORENGOA
<b>Aieru KJKE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 15:30. Plazeta, Lezon.
JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA
<b>Ostadar SKT A - Aretxabaleta KE UDA A</b> Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN 1. MAILA, KOPA
<b>Lengokoak KE - Ostadar SKT B</b> Larunbata. 18:00. Cesar Benito, Donostian.
KADETEEN OHOREZKO MAILA
<b>Hondarribia FE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 11:15. Ondartza, Hondarribian.
KADETEEN 1. MAILA, KOPA
<b>Ostadar SKT B - Euskalduna SD B</b> Larunbata. 12:00. Michelin kirol gunean.
<b>Lazkao KE B - Ostadar SKT A</b> Larunbata. 12:30. Arizti Handi, Lazkaon.
KADETEEN OHOREZKO KOPA
<b>Danena KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:00. Elbarrena, Zizurkilen.
INFANTIL TXIKIA, SAILKATZE FASEA
<b>Ostadar SKT - Billabona KE</b> Larunbata. 10:30. Michelin kirol gunean.
INFANTILEN 1. MAILA
<b>Ostadar SKT A - Zarautz KE B</b> Larunbata. 13:30. Michelin kirol gunean.

<b>Ostadar SKT B - Texas Lasartearra</b> Larunbata. 15:30. Michelin kirol gunean.
<b>ARETO FUTBOLA</b>
SENIOR 1. MAILA
<b>Eguzki Aldaz H.K. - Aurrera KE</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.
<b>Eguzki Garoa taberna - Anoeta FT</b> Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.
SENIOR 2. MAILA
<b>Laskorain KE - Eguzki ISU Leihoak</b> Ostirala. 20:30. Usabal, Tolosan.
JUBENILAK
<b>Lauburu KE Ibarra - Eguzki 2KN</b> Larunbata. 12:00. Belabieta kir., Ibarren.
<b>Eguzki Balerdi Harategia - SUMMA Aldapeta</b> Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kir.
HERRIKO TXAPELKETA
<b>Bar Goiko - Insausti</b> Larunbata. 15:15. Michelin kirol gunean.
<b>Garoa Taberna - Trumoi taberna</b> Larunbata. 16:15. Michelin kirol gunean.
<b>Viña del Mar - Asador Irigoyen</b> Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.
<b>Bar Buenetxea - Patricio Coctel Bar</b> Larunbata. 18:15. Michelin kirol gunean.
<b>SASKIBALOIA</b>
SENIOR PROBINTZIALA, 1. MAILA
<b>AZ Casa de La Rioja - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Benta Beri kir., Donostian.

SENIOR PROBINTZIALA, 3. MAILA
<b>Ostadar SKT - Zalburdi Debasket</b> Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.
JUNIOR ERRENDIMENDU
<b>Grupo EME Oiarso SKT - Ostadar SKT</b> Larunbata. 12:00. Don Bosco, Erreterian.
JUNIOR PARTAIDETZA
<b>Ostadar SKT - Bera Bera Monpas</b> Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kir.
EUSKAL LIGA, KADETE
<b>Ostadar SKT - San Viator C</b> Larunbata. 17:00. San Viator, Gasteizen.
KADETE PARTAIDETZA
<b>Ostadar SKT - Zast Zarautz ZKE</b> Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kir.
INFANTIL HANDI PARTAIDETZA
<b>Ostadar SKT - Añorga Saskibaloia</b> Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.
<b>PILOTA</b>
PROFESIONALA, PROMOZIOA, BINAKAKOIA
<b>Arteaga II eta Urretabizkaia II - Dario eta Ruiz</b> Larunbata. 18:00. Labrit, Iruñean. (lehen partida)
BINAKAKOIA, SENIOR 1. MAILA
<b>Intza - EPLE</b> Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean. (bigarren partida)

BINAKAKOIA, KADETE 3. MAILA
<b>Intza - Aloña Mendi</b> Larunbata. 16:00. Michelin kirol gunean. (lehen partida)
2. MAILAKO INFANTILA
<b>Alde Zaharra 2 - Intza</b> Ostirala. 18:30. Loiola, Donostian.
<b>ERRUGBIA</b>
EUSKAL LIGA 2
<b>Babyauto Zarautz/ Beltzak - Kanpanzar A.</b> Larunbata. 13:30. Michelin kirol gunean.
18 URTEZ AZPIKOAK
<b>Babyauto Zarautz/ Beltzak - La Rioja</b> Larunbata. 11:00. Asti, Zarautzen.
16 URTEZ AZPIKOAK
<b>Eibar RT - Mutriku/ Zarautz/ Beltzak</b> Larunbata. 14:15. Unbe, Eibarren.
14 URTEZ AZPIKOAK
<b>Bera Bera RT - Babyauto Zarautz/ Beltzak</b> Larunbata. 16:00. Kote Olaizola, Donostian.
10 ETA 12 URTEZ AZPIKOAK
<b>Babyauto Zarautz/ Beltzak taldeko txikiak federazioko jardunaldia dute.</b> Larunbata. 10:30. Lakuá, Gazteizen.
<b>BOLEIBOLA</b>
SENIOR MAILA
<b>Goierri (J) - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Aldiri, Urretxun.

<b>IGERIKETA</b>
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
<b>Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako Neguko txapelketan lehiatuko dira.</b> Larunbata eta igandea. Agorrosin kir., Bergaran.
GIPUZKOAKO SARIA
<b>Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako Neguko X. Sarian partea hartuko dute.</b> Larunbata. 16:00. Aiurralde kir., Andoainen.
<b>ATLETISMOA</b>
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
<b>Ostadar SKTKo atletiek absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu dute.</b> Larunbata eta igandea. Antonio Elorza bel., Donostian.
GIMNASTIKA ULIA KROSA
<b>Lasarte-Oriako korrikalariak Gimnastika Ulija krosoko 10 km. eta 5,2 km. lasterketan parte hartuko dute.</b> Igandea. 11:15 eta 12:15. Donostian.
<b>MENDIA</b>
KOBAS KOBAS TRAIL
<b>15 kilometrotako lasterketa lehiatuko dira hainbat herritar.</b> Igandea. 09:45. Zestean.
HIRU-HERRI TRAIL
<b>Lasarteoriatarrek 18 km. proban izango dira lasterka.</b> Igandea. 10:00. Uhartea, Nafarroan.

# Garaipena errepikatzerik ez du izan Ostadarrek

Gipuzkoako Txapelketako laugarren partida jokatu dute asteburuan Ostadar Boleiboleko neskek Kostkas Igartzaren kontra, 0-3 galdu dute. Urtarrilean hasi dute lehiaketa eta garaipen bakarra lortu dute orain arte, Goierri taldeko seniorren aurka

## Txintxarri

Gipuzkoako Txapelketako lehen garaipena lortu ondoren, Kostkas Igartza taldea hartu du Ostadar Boleibolek asteburuan Maialen Chourraut kiroldegian. Tamalez, urdin-beltzek ezin izan dute pasa den asteburuko emaitza ona errepikatu eta 0-3 nagusitu zaie talde donostiarra: 9-25, 8-25 eta 12-25. Edonola, emaitzak iradoki dezakeenaren kontra, mailan hobeak baino, talde gisa aritzeko gaitasun handiagoa erakutsi zuten bisitariak. Kontuan izan behar da, Asier Acuriolak entrenatzen duen taldea aurten hasi dela lehiatzen eta elkarrekin jokatzera ohitzen ari direla. Are gehiago, jokalarietako batzuk hasiberriak dira boleibolean.

Hasieratik eta ia partida osoan atzetik joan zen etxeko taldea. Saketik egindako hainbat puntu kateatuta aurre hartu zuen Kostkasek. Tanto azkarrak izan ziren asko, defentsan egindako hutsegiteekin edo baloira berandu iritsita amaituak. Hala, tartea handitzen joan ziren donostiarrak lehen joko irabazita. Amore ematetik urruti, norgehiagokak aurrera egin ahala, hobera egin zuen Ostadarren seikoak. Acuriolak jokalariek animatu zituen etsi gabe aurrera jarrai zezaten eta zuzenketak egin



Emaitza onena izan ez bazen ere, gogotsu aritu ziren urdin-beltzak. TXINTXARRI

zizkien landutakoa gogoan izan zezaten. Joko amaierako emaitza antzekoa izan bazen ere, parekatuagoak izan ziren hurrengo bi jokoa. Hirugarrenean, gainera, tanto politak ikusi ziren.

## Ikasi eta landu

Hasierak ez dira errazak izaten askotan, are gehiago aurrez aurre eskarmentu eta ibilbide luzeagoa duten jokalariek dituzunean. Horregatik, garrantzitsua izaten da helburuak ondo zehaztea. Ostadar Boleibol taldea berria da eta xede dute elkar ezagutu, ongi jokatu eta disfrutatzea. Partidaz

partida lan saioetan egindako ahalegina erakusten ari dira. Irekiera Torneoan prestatu ostean, urtarrilean hasi dute Gipuzkoako Txapelketa.

Zortzi talde dira lehen, eta asteburukoaren ondoren, garaipen bat eta hiru porrot lortu dituzte urdin-beltzek. Lizardi eta Hernaniren kontra, Kostkasen aurka bezala, 3-0 galdu zuten. Goierri senior taldearekin izandako norgehiagokan, berriz, 2-3 irabazi zuten, oso partida berdindua izan zen. Asteburu honetan Goierri taldeko juniorren aurka beste aukera bat izango dute ikasitakoa landu eta erakusteko.



TXINTXARRI

## Garaipen argia eta garrantzitsua

Axier Arteaga herritarra Promozio Binakako Txapelketan ari da lehiatzen, Urretabizkaia II. arekin batera. Nahiko irregular ari badira ere, finalerdietara sailkatzea garaipen bakarrera dauka bikoteak. Aldea murriztea lortu dute, garaipen argi eta oso garrantzitsu batekin: 22-6 gailendu ziren Elordi eta Etxebarriaren aurka, Igorren (Bizkaia).

Ligaxka bukatzeko hiru jardunaldiren faltan, seigarren postuan dira Arteaga II eta Urretabizkaia II, lau garaipenekin. Bosna dituzte Salaberria-Garmendiak eta Zabala-Ruizek. Azken horien aurka jokatu dute asteburuan, Iruñean.



UNAI REBE

## Rebe eta Begiristain garaile

Euskal Herriko XI. Mus Txapelketa martxan da. Herriz herri ari dira jokatzeko lehen kanporaketa; Unai Rebe eta Mikel Begiristainek irabazi dute Lasarte-Oriakoa, iaz bezala. Gipuzkoako fasera sailkatu dira; otsailaren 29an ariko dira, Seguran. Zazpi bikote elkartu ziren Xirimiri elkartearen larunbatean, herriko kanporaketa jokatzeko. Jon Pello Artetxe eta Haritz Urkiaren aurka jokatu zuten finala Begiristainek eta Rebek. Iaz ederki aritu ziren Euskal Herrikoan: zazpigarren geratu ziren.



# Zozketa!

## Ttakun Kultur Elkarteke bazkide zara?

**IZAN IÑURRI SORTA**  
(Poltsa urdin bat + bi pegatina + Ama lamina)  
zozkatuko ditugu.

Eman izena otsailaren 21a baino lehen.



Instagram  
@izaninurri



inurri

harpidetza@ttakun.eus helbidean, bulegoan, 943 37 14 48 zenbakira deituta eta 646. 82 44 66 (whatsapp)

# Felix Manso eta xakea: afizioa baino, pasioa

Felix Manso lasarteoriatarrek 35 urte daramatza federatu gisa jokatzeko xakean; kirol horrekiko zaletasuna, ordea, lehenagotik dator. Urnietako Eguzki taldean jokatzeko du, eta indibidualki ere bai: Danobat-Iriondo eta Gipuzkoako Txapelketak irabazi ditu berriki

## Iñigo Gonzalez Sarobe

"Xakea ikaragarri gustatzen zait. Batez ere, arerioek jartzen dizkidaten oztopoak gainditzea". Pasioz hitz egiten du xakeaz Felix Manso herritarrak: kirol hori du afizio. Ofizio ere bai zentzu batean, profesionala ez den arren, ordu asko eskaintzen dizkiolako: liburuak irakurri, xake jokalar handien jokaldiak erreproduzitu, Internet bidez mundu osoko jokalarien kontra jokatu... Autodidakta moduan hasi zen, txikia zela, eta, hainbat urteren buruan, aditu bihurtu da. "Gero eta gehiago jakin, orduan eta gehiago gozatzen duzu". Hamasei urte zituela federatu zen, Andoaino Agustin de Leiza klubean, herri horretara ikastera joan zenean, Urnietatik. 35 urte pasa dira ordutik. Besteak beste, bizitokiz ere aldatu da; Lasarte-Orian bizi da gaur egun.

Urnietako Eguzki klubean jokatzeko du, Euskal Ligako taldean. "Oso zaila da mantentzea; hamarretik lau talde jaisten dira", zehaztu du Mansok. Taldeka bakarrik ez, indibidualki ere jokatzeko du. Azkenaldian, maizago: "Gehiago prestatu izan ditut talde-lehiaketak orain arte, baina beti jarraitu dut bakarrik jokatzeko". Berriki Elgoibarko Danobat-Iriondo Txapelketa irabazi du,



Felix Manso, irabazle trofeoarekin. F. MANSO

eta Gipuzkoakoa ere bai, beterano mailan. "Danobat-Iriondok maila gehiago du: 50 jokalar aritu ginen, lau kategoriatan". Bere ibilbide luzea errepasatu du: "Nire urte onenak, bakarka, 2000 eta 2004 artekoak izan ziren; Euskadiko hainbat txapelketa jokatu nituen, Gipuzkoakoetan postu altuetan geratu... afizionatu mailan, hori bai, profesionalik ez zegoelako, baina aizu, ez da gutxi".

ELO izeneko puntuazio sistema erabiltzen dute xakean. "Teniseko ATParekin alderatzen dut nik", dio herritarrak. Zehaztu du berak 2.056 puntu dituela gaur-gaurkoz: "Afizionatu batek, batez beste,

1.400 dauzka; Magnus Carlsenek, munduko txapeldunak, 2.880". Ez dago batere gaizki.

## Xakearen bilakaera

Mansoren iritziz, "asko" aldatzen ari da xakean jokatzeko modua. "Belaunaldi gazteek partida dinamikoagoak planteatzen dituzte; niri estilo geldoagoa gustatzen zait, estrategikoagoa". Anatoli Karpov errusiarra da Mansoren erreferenteetako bat: "Aurkariak pixkanaka itotze hori oso gogoko dut". Aipatu ditu jokalar gehiago. Esate baterako, Garry Kasparov. "Historiako onena da".

Mansok argi du: "Internet perfektua da xakearentzako". Adibide bat jarri du: "Lehen, 100 partida jokatzeko, bi urte inguru behar zenituen; orain, askoz azkarragoa da dena". Horrez gain, aukera ematen dio mundu osoko arerioen aurka jokatzeko, ikasteko, jokaldiak errepasatzeko... Hori bai, desabantailak ere baditu: "Ordenagailuak esaten dizu zein den jokaldi egokiena, baina ez zergatik". Xakea irakatsi izan du Mansok, Urnietan. "Gogoratzen dut, jubenil mailan, liga irabazi genuela". Posible ikusten du irakasten hastea Lasarte-Orian ere. "Irakasle dinamika berriro hartu beharko nuke, trebatu, baina aizu, zergatik ez?".



Igeriketa egokituko Espainiako txapeldun berria da Zudaire, junior mailan. BURUNTZALDEA IKT

## Nahia Zudaire, Espainiako txapeldun junior mailan

Madriren aritu da igerilari gaztea, Euskadirekin: lau proba jokatu ditu. Puntu guztiak batuta, bera izan da onena

### Txintxarri

Kategoriaz aldatu da Buruntzaldea IKTko igerilari Nahia Zudaire. Infantil, kadete edo junior izan, ordea, berdin jarraitzen du: podiumeko koska gorenera igotzen. Urtarrileko azken asteburuan Madriren lehiatu zen, Euskadiko selekzioarekin, Igeriketa Egokituko Espainiako Txapelketan. Lau proba jokatu zituen igerilari gazteak; horietako guztien puntuak batuta, bera izan zen onena. "Marka pertsonal berririk ezartzea ez du lortu, baina denbora bikainak egin ditu", nabarmendu du Borja Apeztegia prestatzaileak.

Larunbatean 100 m. eta 400 m. libre jokatu zituen Zudairek. Bietan egin zuen denbora onena: 05.26,25 eta 01.14,02, hurrenez hurren. Podiumera zein igo erabakitzeak proba guztietako denborak aintzat hartzen zirenez, igandeko jardunaldian postu

horri eutsi behar zion igerilari gazteak. Eta baita egin ere: 100 m. tximeletan lehenengo izan zen, 01.24,28ko denbora eginez. Laugarren eta azken proban, lau estilotako 200ekoan, bigarren sailkatu zen. Kronometroa 03.13,29an geratu zuen zubietarrak. Epailleek proba guztien batura egin zutenean, argia izan zen emaitza: Zudaire izan zen txapeldun, 2.620,6 puntu zakuratuta, bigarrenak baino 400 gehiago.

### Alebinak, Azpeitian

Trebatzen jarraitzen dute igerilari gazteak. Azpeitian aritu ziren pasa den igandean, maila txukuna erakutsiz. Zortzi neska-mutilek egin zuten igerian: Aitor Santos, Jurgi Sukunza, Jon Pelayo, Iker Gorostegi, Iker Gandia, Miren Sarobe, Andrea Lobato eta Alba Escribanok. Marka pertsonal ugari egin zituzten kirolari gaztetxoek.

## Goierri irabaziz debutatu du Euskal Ligan Ostadar SKTk

Kategoria berriari azkar hartu diote neurria urdin-beltzek; 56-42 garaitu dute Goierri Oxylor, kiroldegian

### Txintxarri

Kadete mailako Euskal Ligan igotzearekin nahikoa ez, eta balentriaz balentria jarraitzen du Ostadar SKTk. Debuteko partida, urduritasuna tarteko askotan kontrako eztaurritik

joaten dena, nagusitasunez irabazi zuten urdin-beltzek, pasa den asteburuan, Maialen Chourraut kiroldegian: 56-42 garaitu zuten Goierri Oxylor.

Lasarteoriatarrek su txikian egosi zuten partida: laurdenez

laurden puntu-aldea handitzen. Lehenengoan alde polita lortu zuten, sei puntukoa, ia beste hiruak batuta lortu zutena bezainbeste: 14-8, 11-10, 14-10 eta 17-14. Aipagarria izan zen Rojoren lana: 25 puntu saskiratu zituen larunbateko neurketan. Larunbat honetan jokatu du Ostadarrek bigarren norgehiagoka, Gasteizko San Viator taldearen aurka, 17:00etan, euren kantxan.


Uzta oparoa jaso zuten gainontzeko taldeek pasa den asteburuan. Irabazi egin zuten

gehienek. Emaitzak hauek izan ziren: Atletico San Sebastian 51-54 Ostadar SKT (Senior probintziala, 1. maila); Ostadar SKT 48-78 Mondragon Unibertsitatea (Seniorren 3. maila); Ostadar SKT 57-52 Bera-Bera Albistur (Junior errendimendua); Santo Tomas Lizzea 58-59 Ostadar SKT (Kadeteak, parte-hartzea); Bera Bera Urgul 41-39 Ostadar SKT (Infantil Haundi, parte-hartzea); Bergara Soraluze 28-60 Ostadar SKT (Infantil txikiak, parte-hartzea).




Larunbateko partidako une bat. OSTADAR SKT


## KOMIKIA



## ZORION AGURRAK



**Ane Miren**  
Zorionak poxpolin! Beti bezain irribarretsu jarraitu. 14 muxu handi denon partez!



**Egoi**  
Zorionak Egoi!!! Otsailaren 8an... bi urte!!! Muxu handi bat.



**Nora**  
Zorionak printzesa zure 11. urteurrenean!!!! Muxu pila gurasoen, Mikelen eta Mariaren partetik.



**Mari Karmen**  
Zorionak lehendakari! Zure eguna primeran ospatu izana espero dugu. Ttakun Kultur Elkarteko kideak.



**Oihana**  
Zorionak sorgina zure laugarren urtebetetzean, aita, ama eta Lorearen partez. Asko maite zaitugu!!

## JAIOTAKOAK


**Nora Lopez Torrecilla.** Otsailaren 1ean.  
**Martin Cordero Vila.** Urtarrilaren 31n.  
**Aiora Ormazabal Arregui.** Urtarrilaren 28an.  
**Xabier Miranda Montero.** Urtarrilaren 28an.  
**Marco Lopez Jasiuk.** Urtarrilaren 26an.

## HILDAKOAK


**Francisco Venegas Dias.** Urtarrilaren 30ean.

## EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 07




Larunbata, 08




Igandea, 09




Astelehena, 10




Asteartea, 11



Asteazkena, 12



Osteguna, 13



## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 07 GANDARIAS-URIBE  
Larunbata, 08 DE MIGUEL  
Igandea, 09 DE MIGUEL  
Astelehena, 10 DE ORUE  
Asteartea, 11 DE MIGUEL  
Asteazkena, 12 LASA  
Osteguna, 13 GIL

**EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00**  
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**  
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cfgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**  
ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 9 43 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERRI AEK: 607 625 233

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**  
OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

### Algarvera eta Kadizera bidaia

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bidaia antolatuta du Algarvera (Portugal) eta Cadizera maiatzaren 28tik ekainaren 5era. Bidaia 700 bat euroko kostua du bazkideentzat eta bazkide ez direnek 775 euro ordaindu beharko dituzte gutxi gorabehera.

Bidaian interesatuak dauden herritarrek Biyak Bat elkarteko bulegotik pasa behar dute 10:00etatik 12:30era. Plaza erretserba egiteko 250 euro ordaindu behar dira.

### 'Oporrak bakean', familia bila

Lasarte-Oriako Udalak *Oporrak Bakean* proiektu solidarioan parte hartzeko deia egin du. Zortzi familia behar dira, udan oporrak pasatzera Lasarte-Oriara etortzen diren zortzi eta hamabi urte bitarteko haur sahararrak hartzeko.

Interesatuak gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan. 650 488 108 telefonora deitu dezakete, edo, bestela, [gizartez@lasarte-oria.org](mailto:gizartez@lasarte-oria.org) helbide elektronikora idatzi.

## SUDOKUA

5	1			3	2			6
	3			1		2	4	
9		2	4	5		1	3	
	9	1			5			4
		3	1		9			2
		8	2		4			9
1	2			4		5	6	
	7	5		2		4		1
3			5	9	1	7	2	

**ESKELAK JARTZEKO**

**TEL: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**  
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

**Txintxarri: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48**

## AZOKA TXIKIA

### LANA

**ESKAINITZA**  
Jatetxe eta proiektu gastronomiko berrirako zerbitzariak eta sukaldariak behar dira. Interesatuak CVA bidali dezakete hurrengo helbide elektronikora: [info@casahumada.com](mailto:info@casahumada.com).

### ESKARIA

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka edo gauetan lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 278 198.

Edozein lan egiteko prest nago: adineko pertsonak zaindu, baserrietan lan egin, portalak garbitu, e.a. Berehala hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 604 341 893.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 488 438.

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 606 661 048.

### BESTELAKO

#### EMAN

Txakur txiki gazte bat, bi urtekoa, dohainik emango nuke. Txertoak jarrita ditu. Harremanetarako zenbakia, 687 355 095.

### SALEROSKETAK

#### SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseoa aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 400 euro. 646 824 466.

## NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


### TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.  
12 €  
(BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

### TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
646.824466

## MANTTANGORRI HIRIBUSA



## Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

#### Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4 (behea)  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

#### Administraria

Nerea Garziarena.

#### Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Zaldúa eta  
Maitane Aldanondo.

#### Publizitatea

Iraiti Zatarain.

#### Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta  
Aizpea Amas.

#### Banatzaileak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta  
Jose Lanchas.

#### Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

#### PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
WhatsApp: 646 82 44 66  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)

#### EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
[txintxarri@txintxarri.eus](mailto:txintxarri@txintxarri.eus)

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

#### Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 7

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez *Marrak* erakusketa ikusgai izango da otsailaren 11era arte. Aurpegi eta gorputzen grabatu eta marrazkiez osatuta dago erakusketa. Marrak dira nagusi irudietan. Siglo20, egun osoan zehar.

### DONOSTIA Ikuskizuna

*Erik eta Win* ikuskizuna estrainekoz eskainiko du Buhameak. Bertsoak, musika, umorea eta antzerkia uztartzen ditu lan berriak. Buhameak Unai Muñoa eta Aitor Atxega herritarrek Ander Lizarralde bertsolari eta Imanol Kamio musikariarekin batera sortutako taldea da. Sarrera, 7 euro. Imanol Larzabal aretoa, Lugaritz kultur etxea, 20:00etan.

## LARUNBATA 8

### USURBIL Mendi martxa

Usurbilgo Aztarrika Gazte Asanbladak mendi martxa antolatu du. Zubietako erraustegiaren erantzuna eman nahi diote gazteek, eta horretarako, otsailaren 27ra arte. Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etatik 21:00etara. Mikel Laboa plaza, 09:00etan.

### LASARTE-ORIA Antzerkia

Marie de Jongh antzerki taldeak *Ikimilikilik* obra taularatuko du. Jokin Oregiren zuzendariaren eskutik, Marie de Jongh antzerki taldeko kideek hitza erabiliko dute lehenengoz istorio bat kontatzeko. Hitza bera beldurrari buruzko hausnarketa bat partekatzeke ezinbesteko elementua izango da. Haurtzaroen hain zuzen sorginen beldur zen neska/emakume baten nondik norakoak aurkeztuko dituzte. Sarrera, 3,80 euro. Manuel Lekuona, 17:00etan.

### LASARTE-ORIA Bertso-afaria

Irakurle Txokoak antolatutako bertso afari literarioaz gozatuko dute herritarrek. Ane Labaka bertsolari lasarteoriatarra arituko da mikrofonoaren aurrean, eta berarekin batera baita Maialen Lujanbio eta Uxue Alberdi ere. Iñigo Astiz arduratuko da gaiak jartzeaz, eta literatur pasarteak txertatzeaz. Sarrerak agortuak daude. Xirimiri elkarte, 21:00etan.



**LASARTE-ORIA Balleta.** Royal Balleten *La bella durmiente* balletaren emanaldiaz gozatu dezakete dantzaren zaleek, emanaldi digitalen atalean. Tchaikovskiren musikak eta Marius Petiparen koreografian oinarritutako lan honek ipuin klasikoan murgiltzen ditu ikusleak. Maitagarriak, sorgina... magia eta dantzaz beteriko lana da. Sarrera, aurretik 7 euro; egunean, 9 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, asteazkena, 19:00etan.

## ASTELEHENA 10

### LASARTE-ORIA Erakusketa

Donostiako CIMASUB 2019ko argazki onenen erakusketa ikusgai izango da, otsailaren 27ra arte. Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etatik 21:00etara.

### LASARTE-ORIA CIMASUB 2020

CIMASUB 2020 edizioari hasiera emateko hamabi filmez gozatu ahalko da:

- *Encuentros con mantas y tiburones*, Antonio Menor Vives.
- *Lágrimas sobre el Océano*, Julio Junquera Aparicio.
- *Kerajaan*, Julie Ouminet.
- *Maldivas Underwater*, Antonio Menor Vives.
- *Salvemos los mares del planeta*, Enrique Talledo Ruiz.
- *Giannis D*, Julio Junquera Aparicio.
- *Gigantes en la noche*, Felipe Javier García Garrido.
- *Indonesia*, Itziar Huerta eta Imanol Unanue.
- *Binaire Diver Paradise*, Jesús Ángel Méndez.
- *Salven al Buchenain*, Ángel Lerma Herrero.
- *Andrea Ferrara*, Fernando Menor Vives.
- *Sueños nocturnos*, David Galvañ.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etatik 20:30era.

## ASTEARTEA 11

### LASARTE-ORIA Plaza dantza

Euskal Inauterietako konpartsako dantzak prestatzeko Plaza dantzako kideek saio berezia egingo dute. Edonori irekia. Sasoeta-Zumaburu ikast., Sasoetako gimnasioa, 20:00etatik 21:30era.

## ASTEAZKENA 12

### LASARTE-ORIA Ikastaroa

Euskal Inauterietatik ate joka ditugu eta Ttakun kultur elkarteak kideek Txantxo ikastaroa antolatu dute oraindik Txantxo jantzia prest ez duten herritarrentzat. Lastozko txanoa eta etxeko oihal zaharrak bakarrik eraman behar dira. Osasun zentroko 2. solairua, 17:30etik 19:00etara.

### LASARTE-ORIA Solasaldia

Gure Esku Dagok Lasarte-Oria Berriketan saio berria egingo du. Erreferendumaren aldeko ekimena aurrera eramateko galdera batzuei erantzun zuzenak eman. Antonio Mercero aretoa, 19:00etatik 20:30era.

### LASARTE-ORIA Plaza dantza

Euskal Inauterietako konpartsako dantzak prestatzeko Plaza dantzako kideek saio berezia egingo dute. Edonori irekia. Sasoeta-Zumaburu ikast., Sasoetako gimnasioa, 20:00etatik 21:30era.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Espías con disfraz**  
Ilganda: 17:00.  
**Puñales por la espalda**  
Ilganda: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

**Aves de presa (y la fantabulosa emancipación de Harley Quinn)**  
Ostirala:  
15:25, 16:30,  
18:00, 19:15,  
20:35, 22:00.

**Underwater**  
Ostirala:  
15:55, 20:40,  
22:35, 00:40.  
Larunbata:  
15:55, 20:40,  
22:35, 00:40.  
Ilganda: 15:55,  
20:40, 22:35.

**Adú**  
Ostirala:  
16:30, 19:15,  
21:50, 00:20.  
Larunbata:  
16:30, 19:15,  
21:50, 00:20.

Ilganda:  
15:25, 16:30,  
18:00, 19:15,  
20:35, 22:00.  
**El escándalo**  
Ostirala: 19:10,  
21:40, 23:50.  
Larunbata: 19:10,  
21:40, 23:50.  
Ilganda:  
19:10, 21:40.

**Las aventuras del Doctor Dolittle**  
Ostirala:  
15:45, 17:00,  
18:00, 19:20.  
Larunbata:  
15:45, 17:00,  
18:00, 19:20.  
Ilganda:  
15:45, 17:00,  
18:00, 19:20.

**Jojo Rabbit**  
Ostirala: 20:15.  
Larunbata: 20:15.  
Ilganda: 20:15.

**Bad Boys for Life**  
Ostirala:  
16:00, 18:05,  
21:35, 00:10.  
Larunbata:  
16:00, 18:05,  
21:35, 00:10.  
Ilganda: 16:00,  
18:05, 21:35.

Ilganda: 16:30,  
19:15, 21:50.  
**Malasaña 32**  
Ostirala:  
22:45, 01:00.  
Larunbata:  
22:45, 01:00.  
Ilganda: 22:45.

**1917**  
Ostirala: 18:30,  
21:00, 23:30.  
Larunbata: 18:30,  
21:00, 23:30.  
Ilganda:  
18:30, 21:00.

**Jumanji: Siguinte nivel**  
Ostirala: 16:15.  
Larunbata: 16:15.  
Ilganda: 16:15.

**Espías con disfraz**  
Ostirala: 15:00.  
Larunbata: 15:00.  
Ilganda: 15:00.



### LABURPENA

### Puñales por la espalda

**Zuzendaria eta gidolaria:** Rian Johnson. **Musika:** Nathan Johnson. **Argazkia:** Steve Yedlin. **Herr.:** AEB (2019). **Antzezleak:** Daniel Craig, Ana de Armas, Chris Evans, Jamie Lee Curtis, Toni Collette, Don Johnson, Michael Shannon, Christopher Plummer, Keith Stanfield, Katherine Langford, Jaeden Martell, Riki Lindhome, Edi Patterson, Raúl Castillo, Frank Oz, M. Emmet Walsh. **Iraupena:** 130 minutu.

## Gezurren artean, egiaren bila

*Puñales por la espalda* misteriozko komedia ikusi ahalko da helduen zinema atalean. Rian Johnsonek (*Star Wars: Los últimos Jedi* edo *Looper*) idatzi eta zuzendu duen filma Agatha Christiren, Conan Doylearen edo Dorothy L. Sayersen istorioak ditu oinarri. Baina parodia edo dekonstrukzioa erabiliz misterio kontakizun horiek eguneratu ditu. Gainera, antzezle ezagun ugaz inguratu da komedia koral hau grabatzeko.

Hautagaitza ugari jaso ditu gidoi onenaren sarirako, hala nola, Oscar sarietan eta Urrezko Globo sarietan hiru hautagaitza izan zituen: komedia

onena eta gizonezko, zein emakumezko aktore onenak (Daniel Craig eta Ana de Armas).

Bere 85. urteurrena familiarekin ospatu eta gero, Harlan Thrombey (Christopher Plummer) misterio eleberrin idazle famatua hilik agertu da bere etxean. Bere buruz beste egin duela dirudi, baina gertaerak galdera batzuk sortzen ditu. Benoit Blanc detektibea agertzen da bat-batean gertaera ikertzera. Blanc jakin-minez eta modu atseginean familiako kide guztiek hitz egiten du. Gertaera argitzeko arrasto faltu eta gezur interesatuen artean murgilduko da.

# Koloretako zakuak eta lastozko txapelak, prest

Euskal Inauteriak Lasarte-Oria hartuko du datorren larunbatean. Txantxo jantzia prestatzen arituko dira herritarrak bihar goizean, eta datorren asteazkenean ere izango da jantzia egiteko bigarren saioa. Egitarau zabala osatu du Ttakun Kultur Elkarteak

## Txintxarri

Ate joka daude aurtengo Euskal Inauteriak. Kolorez jantziko da Lasarte-Oria datorren asteko larunbatean, eta Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako egitarauaz gozatzeko aitzakia bat baino gehiago izango dituzte herritarrek euskal mozorroak jantzi eta kalera ateratzeko.

Goizeko deskantsuaren ostean, arratsaldean lehertuko da festa giroa. 16:30ean, Zubietan ekitaldia egingo dute. Horren ostean, kalejiran abiatuko dira Lasarte-Oriara, eta Hipodromoko zubian elkartuko dira lasarteoriatarrekin. Horrela, guztiak elkarrekin dantzan eta kantuan ibiliko dira herriko kaleetan barrena.

Hipodromo etorbideetik Tajamarreko biribilgunera joango dira lehenik, eta, handik, Kale Nagusira. Ondoren, Arkupeko biribilgunera iritsiko dira dantzan, eta, handik, Okendo plazara joango dira desfilea bertan amaitzeko.

## Senidetzea Okendo plazan

Kalejiraren ostean, Okendo plazan egingo dute senidetze ekitaldia. Lasarte-Oriak atek zabalduko dizkie Txantxoei; urteroko ituna berresteko elkartuko da herria horiekin. Urte berria "oparoa" izateko itunean hitzartutako lehengaiak eskainiko dizkie herriak Txantxoei, baina haiek, ordainetan, herriaren uzta,

abereak eta herritarrak errespetatuko dituztela zin egin beharko dute. Halare, iragan urtean Kaxkamalok Lasarte-Orian zabalduko gaitzak ez dizkiote barkatuko, eta sutan erreko dute.

## Txantxo jantzia, prestaketak

Euskal Inauterietan parte hartu nahi duten herritar gazteentzako Txantxo tailerra antolatu du Ttakunek. Datorren asteazkenean izango da zakuak eta lastozko txapelak koloretako zintekin apaintzeko aukera. 17:30etik 19:00tara. Anbulatorioko bigarren solairuan izango dira saioak, eta lastozko txanoa eta oihalak eramatea ezinbestekoa dela jakinarazi dute antolatzaileek.



Zubietarrak plazan ekitaldia egin ostean abiatuko dira Lasarte-Oriara. TXINTXARRI



Senidetzearen aurretik, herriko kaleetan barrena egingo dute kalejira. TXINTXARRI

# EUSKAL INAUTERIAK OTSAILAK 15 • LASARTE-ORIA

16:30 | Zubietan ekitaldia

Ondoren, Zubietatik Hipodromoko zubira **KALEJIRA**

17:00 | **DESFILEAREN HASIERA** (Hipodromoko zubitik herritik barrena)

19:00 | **SENIDETZEA, DANTZA eta SUAREN EKITALDIA**

(Okendo plazan)

**Amaitzeko:** Partaideentzako txokolatada goxoa Okendo plazan

Eguraldi txarra eginez gero, festa 17:30ean hasiko da Oriarte-Landaberriko estalkian